



Barcelona WINE WEEK

Informazio gehiago:

Udane Alzola
688 81 03 44
ualzola@hazi.eus

Data: 2020ko otsailaren 3tik 5era

Tokia: Montjuic Azokagunea, Bartzelona

Maiztasuna: bi urtekoa

Norentzat: ardogintza sektoreko profesionalak

Jatorria: Alimentaria barruko Intervin pabiloia desagertu eta BWW sortu da ardogintzaren sektorearen nazioarteko ahalmena ikusgarriago bihurtzeko.

Izen-emateko epea: 2019ko urriaren 7a

Web: www.barcelonawineweek.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Eusko Jaurlaritza BWW azokan

Parte hartzeko eredua eta kostua

Parte hartzeko baldintzak

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Izena emateko formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **BARTZELONA WINE WEEK 2020** azokan

Euskadiko upeltegien parte hartzea antolatu du HAZI Fundazioaren bitartez. BWW Bartzelonako Montjuic azokagunean ospatuko da **2020ko otsailaren 3tik 5era arte**.

AZOKAREN IZAERA

Alimentaria barruko Intervin pabiloia desagertu eta **Bartzelona Wine Week (BWW)** izeneko azoka berria sortu da. Aldaketa horren xedea da ardogintzaren sektorearen nazioarteko ahalmena ikusgarriago bihurtzea.

BWW azokaren antolatzaileen arabera, “azoka hau ardoaren munduko enpresa eta erakundeen eskariari erantzuteko sartzen da azoken panoraman, nazioarteko plataforma baten bila baitaibiltza”.

Barcelona Wine Week gune hauek izango ditu:



- **BWW Lands:** erakusketaren gune nagusia, bodegak jatorri izendapenen arabera bilduko dituenak
 - **BWW Groups:** bodega talde handiak eta multimarka banatzaileak
 - **BWW Special & Sparkling Wines:** ardo bereziak eta apardunak
- **BWW Complements:** ekipamenduak, ardoen osagarriak, zerbitzuak eta argitalpenak
 - **Barcelona Cocktail Art:** likoreak, destilatuak eta koktelak
 - **BWW BUSINESS:** networking eta nazioartekotze gunea
- **BWW HUBS:** dinamizazioa, hitzaldi, eztabaida eta mahai inguruekin
 - **BWW TRENDS:** joerak eta bereizgarriak
 - **BWW GASTRONOMY:** sukaldaritza

AZOKAREN DISEINUA

BWWk azokaren kontzeptu berri bat aurkezten du, lurraldearen presentzia nabarmentzeko helburuarekin, kalitate zigiluen aterkipean (JI, JIK, VT-Lurraldeko Ardoak, etab.).

Arrazoi hori tarteko, **BWW Lands** guneko standen diseinua bakarra eta uniforme izango da, upategiak jatorri izendapenen arabera elkartuko direlarik, irizpide nagusi moduan.

BWWren antolatzaileak arduratuko dira stand bakoitzaren diseinu, muntaketa, desmuntaketa, grafia, elementu apaingarri, altzari eta abarrez.



EUSKO JAURLARITZAREN PRESENTZIA

Barcelona Wine Week azokak formatu desberdina izango du, eta Eusko Jaurlaritza ezingo da joan ez bere diseinuarekin, Euskadi-Basque Country txapelpean Arabako Errioxako upategiak, Txakolindegia edo Sagardogileak elkartuz.

Horregatik, antolatzaileei planteatu zaie BWW Lands aldean 3 gune independente sortzea:

- 1. ARABAKO ERRIOXAKO gunea:** Bertan elkartuko dira BWW edizio berrian parte hartu nahi duten Arabako Errioxako bodega guztiak. Gune horretan, sabaiko iragarkian ARABAKO ERRIOXA ipiniko du.
- 2. TXAKOLI gunea:** Bertan elkartuko dira BWW edizio berrian parte hartu nahi duten TXAKOLINDEGI guztiak. Gune horretan, sabaiko iragarkian TXAKOLI ipiniko du, 3 Jatorri Izendapenak logotipo bidez identifikatuta.
- 3. SAGARDOA gunea:** Bertan elkartuko dira BWW edizio berrian parte hartu nahi duten SAGARDOGILE guztiak. Gune horretan, sabaiko iragarkian SAGARDOA ipiniko du, Euskal Sagardo Jatorri Izendapenaren logotipoaren bidez identifikatuta.

Hiru guneetako standen diseinua berdina izango da. Deialdiaren hasieran zehazten denez, antolatzaileak arduratuko dira standaren diseinuaz eta muntatu eta desmuntatzeaz.

PARTE HARTZE EREDUA

Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko 2 aukera eskaintzen ditu:

1. 7 m²-ko stand eredua

PREZIOA: 1.350 € + %21 BEZ = 1.633,50 €

2. 14 m²-ko stand eredua

PREZIOA: 2.750 € + 21% BEZ = 3.327,50 €

Oharra: BWWren antolatzaileek jakinarazi digute gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar dela adierazitako gune bakoitzerako.

Gutxieneko hori betetzen ez bada, Eusko Jaurlaritzatik jakinaraziko dizuegu, egindako ordainketa itzultzeko, eta azokaren ezaugarri horiekin zuen presentzia deuseztatzen.

1go aukera: 7 m²-ko STANDa BWW Lands gunea

PREZIOA:

1.350 € + %21 BEZ = 1.633,50 €

ZERBITZUAK

- Standeko altzariak
- Industri tasa
- Potentzia elektrikoa 24 orduz
- 1 eguneko 52 gonbidapen profesional elektroniko
- Erakusleentzako 6 pase

STANDAREN XEHETASUNAK

Zorua:

- Azokako moketa, guneari esleitutako kolorearekin

Egitura:

- 7 m²-ko standa, zehaztutako diseinuaren arabera
- Biltegiko altzari bat OSB egurrezko akaberarekin, 200*140 *80, hozkailua eta ate bikoitzeko eta sarrailladun armairu bat jartzeko espazio batekin, biltegitartzeko 120*140*80 espazio batekin



Grafia

- Binilo beltzeko errotulu bat, letra estandarizatuarekin, atzera-argitutako errotuluaren aurrealdearen gainean

Altzariak*

- 1 erakusmahai 60*120*90 cm, egurrezko azalerarekin, eta biltegitartzeko 60*60*90 cm-ko *bic* batekin
- 2 aulkitxo
- 80 x 90 cm-ko atzera-argitutako errotulu bat.

Elektrizitatea

- 1.1 KW-eko koadro elektriko bat
- Entxuferako oinarri bat hozkailurako edo beste elementu batzuetarako
- Entxuferako oinarri hirukoitz bat beste erabilera batzuetarako
- Argi orokorrak LED fokuen bitartez
- Gutxienez 300 W-eko potentzia egongo da sobera erabilera librerako

* Hozkailua EZ dago sartuta.

2. aukera: 14 m²-ko STANDa BWW Lands gunea

PREZIOA:

2.750 € + %21 BEZ = 3.327,50 €

ZERBITZUAK:

- Standeko altzariak
- Industri tasa
- Potentzia elektrikoa 24 orduz
- 1 eguneko 53 gonbidapen profesional elektroniko
- Erakusleentzako 7 pase

STANDAREN XEHETASUNAK

Zorua:

- Azokako moketa, guneari esleitutako kolorearekin

Egitura:

- 14 m²-ko standa, zehaztutako diseinuaren arabera
- Biltegiko 2 altzari OSB egurrezko akaberarekin, 200*140 *80, bakoitzean hozkailua eta ate bikoitzeko eta sarrailladun armairu bat jartzeko espazio batekin, biltegitartzeko 120*140*80 espazio batekin



Grafia

- Binilo beltzeko errotulu bat, letra estandarizatuarekin, atzera-argitutako errotuluaren aurrealdearen gainean

Altzariak*

- 1 erakusmahai 60*120*90 cm, egurrezko azalerarekin, eta biltegitartzeko 60*60*90 cm-ko *bic* batekin
- 2 aulkitxo eta 4 aulki
- 80x90cm-ko atzera-argitutako errotulu bat
- 1 mahai 80 cm-ko diametrokoa
- 240*60*95 cm-ko bitrina bat, egitura tubular metalikoa eta metakrilatozkoa

Elektrizitatea

- 1.1 KW-eko koadro elektriko bat
- Entxuferako oinarri bat hozkailurako edo beste elementu batzuetarako
- Entxuferako oinarri hirukoitz bat beste erabilera batzuetarako
- Argi orokorrak LED fokuen bitartez
- Gutxienez 300 W-eko potentzia egongo da sobera erabilera librerako

* Hozkailua EZ dago sartuta.

OHAR GARRANTZITSUA

1. Lehenengo zein bigarren aukeran **HOZKAILUA EZ DAGO SARTUTA.**

Hozkailua behar duten enpresa erakusleek azokaren antolatzaileei eskatu beharko diete, eta zuzenean fakturatuko zaio eskaera egin duen enpresa erakusleari.

2. Kopa zerbitzua behar duten enpresa erakusleek azokaren antolatzaileei eskatu beharko diete, eta zuzenean fakturatuko zaio eskaera egin duen enpresa erakusleari.

3. Enpresa erakusleak, dagoenaz gain (aukeratutako standaren arabera), altzari, logotipo edo bestelako elementu gehigarriak behar duela uste badu, azokaren antolatzaileei eskatu beharko die, eta zuzenean fakturatuko zaio eskaera egin duen enpresa erakusleari.

Eusko Jaurlaritzak, Haziren bitartez, BWW azokako arduradunaren emaila/harremana bidaliko dizue, zerbitzu horiek eskatzeko.

4. Ez dago baimenduta roll ups edo bestelako elementu promozionalik instalatzea, BWWren irudi globala aldatzen badu. Erakusteko erabil daitezkeen azalerak dira erakusmahaia eta bitrina (dagoenean).

5. HAZlri jakinarazi beharko zaio standaren errotuluan agertu behar den informazioa, antolatzaileei helarazi ahal izateko. Ez bada eskatutako datetan bidaltzen, izena emateko garaian adierazitako izena erabiliko da. Aldaketarik eginez gero, horrek kostu gehigarria izango du, eta zuzenean fakturatuko zaio bodegari, BWWren antolakuntzaren bitartez.

RIAA n erregistratutako enpresak Parte hartzeko konpromisoa EAEn egindako produktuak

Parte hartu nahi duten enpresa ekoizleek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza soziala, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta egon behar dute.

Enpresa erakusleak eguneratuta eduki behar ditu zerga zein Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Azokaren aurretik

- Enpresa erakuslearen ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, BWWn presente egongo dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman.
- Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Enpresa erakusleek derrigor egon behar dute muntatzeko egunean, euren merkantzia jasotzeko, esaten zaien orduan. BWWren antolatzaileek konpromisoa dute standa inaugurazioa baino 24 ordu lehenago entregatzeko.

Azokan zehar

- EAEko produktuak baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango da, inola ere, beste autonomia erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Enpresa erakusleak azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar du arreta standean.
- Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standean arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo edizio-rako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.) Haren eskariari bakarrik erantzun zaitza baldin eta leku liberrik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan egindako gainerako eskari guztiei erantzun eta gero. Halaber, enpresa batek edo batzuek standa hutsik uztearen ondorioz antolakuntzak zigor ekonomikoren bat jartzen badio Eusko Jaurlaritzari, zigor hori berehala jasanaraziko zaio arau haustea egin duen enpresari.
- Enpresa erakusleak, azoka amaitzerakoan, produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu behar ditu, jaso ziren egoera berberetan. Bestela eginez gero, BWWk enpresa erakusle bakoitzari fakturatuko dio lan gehigarriaren ondoriozko kostuak.
- Enpresa erakuslea arduratuko da azoka garatzen den egunetan erakusketaren berezko ekintzetan gertatzen diren gorabeherak.

Izen-emate formularioa eta Ordainketa agiria

Izen-emateko epea: 2019ko urriaren 7a

Parte hartu nahi baduzu, leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainagiria bidaltzea hurrengo helbidera: ualzola@hazi.eus

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da.

IZENA EMATE FORMULARIOA BETE



Izena emateko formularioa bete, adieraziz zein stand mota nahi duzuen, 7 edo 14 m².

ORDAINKETA AGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: ES49 3035-0179-61-1791069900 HAZI FUNDAZIOAren izenean.

Laboral Kutxaren Bic: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena + BARCELONA WINE WEEK 2020"

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko du, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

Izena emateko epea: 2019ko urriaren 7a

GARRANTZITSUA:

Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, **IZENA EMATEKO FORMULARIOA behar bezala beteta eta ORDAINAGIRIA bidali beharko dira**, izen ematearen datan, ondorio guztietarako, ordainketa egin den eguna agertuko delarik.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DU ESAN NAHI enpresak Jaurlaritzaren standean parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izen ematea onartu den jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, ONARTUA DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.